



OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza
*Osasun Publikoaren eta Adikzioen
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud
*Dirección de Salud Pública
y Adicciones*

2020 DENBORALDIAN IGERILEKU-INSTALAZIOAK IREKI ETA MANTZENTZEKO IRIZPIDE SANITARIOAK

COVID-19AREN KONTINGENTZIA PLANA

Gasteizen, 2020ko maiatzaren 27an

OHARRA:

Dokumentu honetan jasotako irizpideak berrikusi eta eguneratu egingo dira, egoera epidemiologikoan izandako aldaketengatik, ebidentzia zientifiko berriengatik eta/edo osasun-araudian izandako aldaketengatik hala behar izanez gero.

1. SARRERA

COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko Lehendakaritza Ministerioaren 463/2020 Errege Dekretua aplikatuz aitortutako alarma-egoeraren ondoren, trantsizio-prozesurako gaitasun estrategikoa baloratzeko irizpideetan ezarritako adierazleen bilakaerak markatzen ditu sektoreak pixkanaka berriz irekitzeko erritmoak, "normaltasun berrirako" bidean, eta berriro hasten diren jarduerak prebentzio-neurriei lotuta egon behar dute nahitaez, SARS-CoV-2aren transmisioaren aurrean.

2. SARS-COV-2AREN TRANSMISIOA IGERILEKUETAN

Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorenaren (CSIC, 2020)¹ *SARS-CoV-2aren hondartzetako eta igerilekuetako transmisioari buruzko txostenak* eta ondorioek honako hau adierazten dute, igerilekuei dagokienez:

- Hondartzetan, ibaietan, lakuetan eta igerilekuetan, ezularekin zein doministikuekin sortzen diren arnas jariakinen eta pertsonen arteko kontaktuaren bidez transmititzen da batez ere SARS-CoV-2a. Beraz, beste edozein lekuri buruzko gomendio orokorrei eutsi behar zaie.
- Jolas-jardueretan, ez da oso gertagarria SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioa bainurako baldintza estandarrak dituen urarekin kontaktua izateagatik edukitzea. Hala ere, jarduera horiek urruntze sozialerako gomendatutako neurrien galera dakarte, oro har.
- Igerilekuetan eta spaetan, oso ezarrita dago agente desinfektatzaileen erabilera, erabiltzaileen joan-etorriek urak mikrobioen bidez kutsa ez ditzaten, eta uretan dagoen desinfekzio-agentearen hondakin-kontzentrazioak nahikoa izan beharko luke birusa inaktibatzeke.
- Instalazioetako giroa tenperatura altuetan mantentzen den kasuetan, saunen eta lurrun-bainuen kasuan bezala, tenperatura altuaren ondorioz (> 60 °C) birusaren biziraupena txikia izatea espero da.

Beraz, kontuan hartuta SARS-CoV-2aren transmisio-bide nagusia arnas jariakinen bidez eta pertsonen arteko hurbileko kontaktuaren bidez dela, igerilekuetan, gomendatutako urruntze sozialeko neurrien galerarekin eta transferentzia-mekanismo gisa balio dezaketen erabilera komuneko objektuekiko kontaktuarekin lotuta daude, funtsean, COVID-19ari lotutako arriskuak. Hauek dira birusaren transmisioa saihesteko hartu beharreko neurriak: uraren tratamendu eta kontrol egokiaz gain, urruntze soziala, eskuen eta arnasketaren higiena indartzea eta instalazioa garbitu eta higienizatzea. Kontzientziazio kolektiboa eta norbanakoaren erantzukizuna garrantzitsuak dira.

¹ Eskuragarri, hemen: https://www.csic.es/sites/default/files/informe_playasypiscinas_csic.pdf

3. XEDEA

- Igerilekuak berriz irekitzeko baldintzak ezartzea, COVID-19aren osasun-larrialdiagatik jendearentzat itxitakoak eta udako denboraldiko igerilekuak.
- Igerilekuetan SARS-CoV-2a kutsatzeko arriskua minimizatuko duten COVID-19 kontingentzia-planak egiteko jarraibideak ezartzea.

4. OSASUN AGINTARITZARI IREKITZEA JAKINARAZTEA

- 1, 2 eta 3A motako instalazio guztiek (20 etxebizitzatik gorako jabekide-komunitateak) **Erantzukizunpeko Adierazpena aurkeztu beharko diote dagokion Osasun Agintaritzari, ireki aurretik**; bertan, instalazioak indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen betekizun higieniko eta sanitario guztiak betetzen dituela eta hori egiaztatzen duten dokumentuak instalazioan eskuragarri daudela adieraziko du igerilekuaren titularrak.
- COVID-19 pandemiak denboraldi honetan eragindako aparteko zirkunstantziak direla-eta COVID-19arekin lotutako osasun-neurrien aplikazioan zuhertasun eta zorrotzasun handieneko printzipioa aplikatu behar denez, **COVID-19 Kontingentzia Plan bat egin behar da**, eta plan hori Autokontrolerako Programan sartuko da. Bertan, dagozkion ministerio-aginduetan edo beste arau batzuetan ezarritako jarduera-murrizketak jasoko dira, eta erabiltzaileen artean kutsatze-arriskuak minimizatzeko prebentzio-neurriak ere ezarriko dira.

Plan hori Osasun Agintaritzari bidali beharko zaio, Erantzukizunpeko Adierazpenarekin batera.

5. COVID-19 KONTINGENTZIA-PLANA EGITEKO JARRAIBIDEAK

COVID-19 Kontingentzia Planak instalazio bakoitzaren inguruabar zehatzetan zehaztu beharko du dokumentu honetan agertzen diren osasun-edukien aplikazioa. Instalazioaren tamainarekin eta ezaugarriekin bat datorren zehaztasuna izango du, SARS-CoV-2aren transmisio-arriskua minimizatzeko helburuarekin, betiere.

Plana Autokontrolerako Programaren parte izango da, programarekin integratuko da eta, gainerako planetan bezala, argi eta garbi adieraziko du zer, nola, noiz eta nork; horrekin batera, gogoraraziko du erabiltzaileen segurtasuna indartzea dela xedea, segurtasun-tarteak mantenduz eta instalazioan higiene-neurriak zorrotzuz, dagoeneko ezarrita dauden gainerako planak betetzea ahaztu gabe.

Langileek, eta, bereziki, plana ezartzeko eta neurri berriak zaintzeko eta kontrolatzeko ardura dutenek plana ezagutzen dutela ziurtatu beharko du instalazioaren titularrak.

Egiten den guztia dagozkion erregistroetan jaso eta deskribatu beharko da.

COVID-19 Kontingentzia Planak honako atal hauek izango ditu gutxienez:

- A. Instalazioetarako sarbidea
- B. Distantzia soziala mantentzeko neurriak (edukieren kontrola eta segurtasun neurriak)
- C. Erabiltzaileentzako informazioa
- D. Eremu komun garbiketa eta desinfekzioa
- E. Ontziko uraren kalitate-kontrola

A) INSTALAZIOETARAKO SARBIDEA

- Lehentasuna emango zaie aldez aurreko hitzorduari, aurrez *online* eta telematikoki ordaindutakoari, edo ahal den neurrian txanponak eta billeteak ukitzea saihesten duten bestelako neurriei.

-Ukipen bidezko sarbide guztiak baztertuko dira, batez ere hatz-marka eta PIN bidezkoak, eta kontaktu fisikorik behar ez duten hurbiltasuneko beste batzuekin ordezkatzeko dira, eskumuturrekoekin, txarteekin eta QR kodeen irakurgailuekin, besteak beste. Sartzeko hesia tornuak badira eta eskuekin/hankekin ukitu behar badira, hobe da horiek jaitzita edukitzea.

- Eskuak desinfektatzeko sistemak eta hidrogel desinfektatzailea duten dosifikagailuak jarriko dira instalazioaren sarreran/irteeran eta eraikinaren barruko beste eremu batzuetan, dosifikatzaile automatikoarekin ahal dela.

B) DISTANTZIA SOZIALA MANTENTZEKO NEURRIAK

- Instalazioko eremu guztietan (harrera, solariuma, nasa, ontziak, aldagelak...) eta elementu komun antolaketan (armairuak, bankuak, komunak...) erabiltzaileen artean 2 metroko segurtasun-distantzia ezartzeko gomendioa aplikatuko da, bai eta antola daitezkeen jardueretan ere

- Deseskalatze-fase bakoitzerako araudiak instalazioaren gehieneko edukieraren ehuneko gisa ezartzen duenaren arabera izango da edukieraren muga. Instalazioaren benetako edukiera *on time* kontrolatzeko sistemak ezarriko dira.

- Instalazioaren sarbideetan eta barruko ibilbideetan segurtasun-distantzia gordetzen laguntzeko, zirkulazioaren noranzkoa markatuko da, ahal den neurrian; areto bakoitzean sarrera-puntuak eta irteera-puntuak bereizten saiatuko gara, eta 2 metroko tarteak markatuko dira.

-Egongunean/solariumean, eremua banatu beharko da, erabiltzaileen artean gutxienez 2 metroko segurtasun-distantzia bermatzeko; horretarako, seinaleak ezarriko dira lurzoruan, eremuak mugatzeko. Distantzia hori lurrean seinaleztatu beharko da, partzelak markatuta, eguzkitako baten eta bestearen artean edo toalla baten eta bestearen artean segurtasun-distantzia gordetzeko (2 m).

- Soroslea, bere lana egiteko behar adina distantzia eta ikuspena bermatuko dituen eremu batean mantenduko da.
- Igerilekuko ontzian ezingo dira txirristak erabili, ezta jolaserako objektuak ere. Une oro errespetatu beharko dira ezarritako edukiera eta bainularien arteko segurtasun-distantzia.
- Aldageletako dutexak eta instalazioko iturriak itxita egongo dira, osasun agintariek kontrakoa erabakitzen ez duten bitartean.

C) ERABILTZAILEENTZAKO INFORMAZIOA

Egungo pandemia-egoera dela-eta, instalazioen erabiltzaileei ohiko mezuak emateaz gain, prebentzio-abisua indartu behar dira, kartelen eta/edo megafoniaren bidez.

Erabiltzaileei prebentzio-neurriei eta igerilekuen erabilerari buruz zuzendutako mezuak honako hauek izango lirateke:

Igerilekura joan aurretik:

1. COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak badituzu, sukarra, eztula edo arnas sintomak, ez joan igerilekura. Kontsultatu zure osasun-zentroarekin.
2. Galdetu erabilera, sarbide eta edukiera-baldintzak.

Igerilekuan eta instalazioan, oro har:

3. Uretan nahiz kanpoan, gutxienez 2 metroko distantzia gorde bizikide ez dituzun pertsonekin.
4. Eskuak maiz garbitu eta desinfektatu. Ez ukitu begiak, sudurra eta ahoa, aurretik eskuak garbitu gabe.
5. Ahoa erabili eta botatzeko zapi batekin edo ukondoaren barrualdearekin estali ez tul eta doministiku egitean.
6. Toallak edo bestelako objektu pertsonalak ez inorekin partekatu. Etxera iritsitakoan, garbitu toallak eta bainujantziak.
7. Ez salto egin ur ertzetik eta ez erabili baloiak, koltxonetak eta abar.
8. Zaindu itzazu adingabeak, eta insistitu prebentzio-neurriak bete ditzaten.
9. Jarraitu igerilekuak erabiltzeko arauak eta gomendioak, eta errespetatu ematen diren jarraibideak.
10. COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak badituzu, arnas sintomak edo sukarra, joan igerilekutik lehenbailehen eta kontsultatu zure osasun zentroan.

D) EREMU KOMUNEN GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA

Garbiketarako eta desinfekziorako, establezimendu eta konkurrentzia publikoko lekuak garbitu eta desinfektatzeko neurrien inguruko Osasun Sailaren² Jarraibide Teknikoan ezarritako gomendioak beteko dira, oro har.

Osasun Ministerioan langile espezializatuak erabiltzeko erregistratutako desinfektatzaileak erabili behar badira, Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean inskribatutako enpresetako teknikari kualifikatuek aplikatuko dituzte. (<https://www.euskadi.eus/informacion/productos-quimicos-salud-ambiental/web01-a2ingsan/es/>)

Ireki aurretik

Ireki aurretik, instalazioak garbitu eta desinfektatu beharko dira, eremu itxietan arreta berezia jarritz, aldageletan edo komunetan, besteak beste.

Kontuan izan behar da desinfekzioa eraginkorra izan dadin aldeztu aurretik garbitu egin behar dela desinfektatu beharreko elementua/azalera.

Itzulera eta metaketa dituen UBS duten instalazioen kasuan, eta itxiera-aldian ez badira aplikatu *Legionellaren* ugaritzea prebenitzeko aurreikusitako mantentze eta kontrol-neurriak, UBS zirkuituaren eta horren elementuen G+D egingo da, 865/2003 Errege Dekretuaren 3 B eranskinaren arabera, eta *Legionella* detektatzeko ur-laginketa egingo da, Legionellosia Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Planean aurreikusi bezala.

Ireki ondoren

Igerilekua duten instalazioetan aplikatzen den Autokontrolerako Programak garbiketa eta desinfekzio-plan bat jasotzen du. Pandemia-egoera honetan, zehatz-mehatz aplikatu beharko da plan hori, kontuan hartuta erabilitako produktuek eraginkorrak izan behar dutela COVID-19aren aurrean.

- Garbiketaren eta desinfekzioaren maiztasuna jende kopuruaren eta erabileraren arabera zehaztuko da. Igerilekuetako erabiltzaileen eskuekin kontaktuan dauden azalerak (aldageletako ateen heldulekuak eta eskutokiak, bainugelak edo dutxak, barandak, bankuak, eta abar) maizago garbitu eta desinfektatu beharko dira, egunean hiru aldiz gutxienez. Garbiketa bakoitzaren eguna eta ordua jasotzen dituen erregistro bat eramango da, eta garbiketaren arduraduna ere identifikatuko da.

Elementu horien manipulazioa ahalik eta gehien saihesteko, ateak irekita mantenduko dira, ahal den neurrian.

2 Eskuragarri, hemen: <https://www.euskadi.eus/normativa-de-medidas-excepcionales-adoptadas-por-el-nuevo-coronavirus-covid-19/web01-a2korona/es/>

- Ekipoak eta materialak ere garbitu eta desinfektatu beharko dira, hala nola kortxerak, klaseetako material osagarria, sareta perimetrala, botikina, armairuak eta instalazioaren parte izanda erabiltzaileekin kontaktuan dagoen beste edozein.
- Komunetan, une oro egiaztatu beharko da xaboia eta/edo soluzio hidro-alkoholikoak daudela, baita erabili eta botatzeko papera ere, eta tapa zein pedala dituzten paperontziak daudela. Gainera, gomendagarria da informazio-kartel bat jartzea ikusteko moduko leku batean (adibidez, ispiluetan, konketaren aurreko paretan), eskuak behar bezala garbitzeko modua azalduz.
- Armairuak garbitzeko eta desinfektatzeko prozedura bat ezarriko da, aurreikusitako erabilera-planaren arabera.
- Alokatzeko edo mailegatzeko altzariak (hamakak, etzaulkiak...) erabilera bakoitzaren ondoren garbitu eta desinfektatuko dira. Maiztasun hori bete ezin bada, ez dira erabiliko.
- Eremu itxien aireztapena areagotu beharko da, aldagelena, komunena, botikinarena eta gela teknikoena, besteak beste. Komeni da kanpoko ateak eta leihoak irekitzea horiek garbitu eta desinfektatu aurretik. Garrantzitsua da instalazioen aireztapen erregularra bermatzea, gutxienez egunero eta airea berritzeko behar den denboran, bai aireztapen naturalaren bidez, bai aireztapen mekanikoaren bidez; kasu horretan, mantentze-lanak areagotu beharko dira (iragazkiak eta bestelako elementuak garbitu).
- Igerileku estalietan edo mistoetan, ontzien esparruko airea ondo berritzen dela ziurtatuko da, eta 742/2013 Errege Dekretuaren II. eranskinean adierazitako aire-kontrolak egingo dira, III. eranskinean deskribatutakoaren arabera.

E) ONTZIKO URAREN KALITATE-KONTROLA

Ireki aurretik

Desberdin jardungo da, pandemia dela-eta establezimendua prebentzioz itxita egon den bitartean izandako jokabideen arabera:

- Establezimendua itxita egon bada, ontziko ura desinfektatzeko, arazteko eta berritzeko mantentze-lan egokirik egin gabe:

Ontzia eta konpentsazio-ontzia garbitu eta desinfektatuko dira, iragazkiak, ponpak, dosifikagailuak, zundak, analizagailuak eta abar prest jarriko dira, ontzia bete eta hiperkloratuko da, desinfektatzailearen eta pH-aren mailak doituko dira eta instalazioa prest edukitzeko beharrezkoak diren eragiketa guztiak egingo dira. Ontzietako uraren hasierako kontrol analitikoa egingo da, uraren kalitatea igerilekuen irizpide tekniko-sanitarioak ezartzen dituen 742/2013 Errege Dekretuaren I. eranskinean ezarritakoarekin bat datorrela ziurtatzeko. Ura bainurako egokia dela egiaztatu ondoren bakarrik irekiko dira jendearentzat.

Agitazioak aerosolak eragin ditzakeen ontzi klimatizatuen kasuan, 865/2003 Errege Dekretuan deskribatutako tratamenduak aplikatuko dira. Jendearentzat ireki baino 15 egun lehenago

aplikatuko dira horiek, gutxienez. Dagokion *Legionella* analisia jaso ondoren ireki ahalko da ontzia.

-Jendearentzat itxita egon bada baina ontziko ura desinfektatu, araztu eta berritu bada, eta esparruko airea ere berritu bada, hau da, instalazioak jendearentzat irekita balego bezala funtzionatzen jarraitu badu, uraren eta airearen kalitate-kontrolak Autokontrolerako Programan ezarritako moduan eginda, dagokion hileko analisia egingo da.

Ireki ondoren

Ontziko uraren kalitatea igerilekuen irizpide tekniko-sanitarioak ezartzen dituen 742/2013 Errege Dekretuan eta EAEko erabilera kolektiboko igerilekuen osasun-araudia onartzen duen 32/2003 Dekretuan xedatutakoaren arabera kontrolatuko da, baita instalazioaren autokontrollean ezarritakoaren arabera ere.

Egoera berezi honetan, ondorengoak egin beharko dira:

Desinfektatzailearen mailen kontrol zehatza egin; kloroaren kasuan, 1-2 mg/l izango da, eta bromoaren kasuan, 4-5 mg/l, alegia, 742/2013 Errege Dekretuak baimendutako balio-tartearen goiko zatian egongo da.

Ura 24 orduz iragazi eta edukiko da zirkulatzen.

Kloro konbinatua ere bereziki kontrolatu behar da, hondar-kloro askearen maila altuek kloro konbinatuaren maila handitu baitezakete, eta horrek ura gehiago berritu beharra ekarriko luke, murrizteko.

Beharrezkoa da hondar-kloro askearen eta pH-aren mailak doitzea, urak desinfektatzeko ahalmen handia eduki dezan. pH-a 7.2tik ahalik eta gertuen egonda, lortzen da kloro aske portzentaje handiagoa egotea azido hipokloroso moduan, eta desinfekzio-efektu ona edukitzea.

Ontzian pH-aren eta hondar-desinfektatzailearen mailak neurtzeko eta erregistratzeko maiztasuna handituko da, eta fotometroa ongi kalibratuko da. Eguneroko ireki aurreko kontrolaz gain, gutxienez hiru kontrol egingo dira bainu-egunean, eta jendetza handieneko uneei emango zaie lehentasuna. Emaitzak analizatzailearen etengabeko irakurketekin kontrastatuko dira, funtzionamendu egokia berresteko.

6. ERANSKINA

JABEKIDE-KOMUNITATEETAKO IGERILEKUAK

Ahal den guztietan, dokumentu honetako jarraibideak bete beharko dituzte.

Nolanahi ere, hauek izango dira kontuan hartu beharreko gutxieneko puntuak:

- Jabekide-komunitatea da instalazioaren titular erantzulea. Esparruaren sarreran adierazi beharko ditu COVID-19aren ondoriozko egoera dela-eta adostutako salbuespenezko erabilera-arauak.

- Une oro egongo da edukiera kontrolatzeaz eta komunitateko arauak betetzeaz arduratuko den arduradun bat.
- Erabilera mugatzeko sistema bat ezarriko da, jendetza handia denean eta gomendatutako edukiera ezin denean bete, igerilekuko esparru osoan 2 m-ko distantzia ziurtatzea errespetatuz. Adibidez: egunen, orduen, adinen eta etxebizitzaren kopuruaren arabera mugatuko da erabilera.
- Igerilekuko esparruaren sarreran hidrogel-dosifikagailuak eta/edo eskuetarako desinfektatzailea ezartzea gomendatzen da.
- Egitura-ezaugarriek ahalbidetzen duten guztietan, ontzira sartzeko eta ontzitik irteteko ibilbideak egingo dira, erabiltzaileak gurutzatzea saihesteko.
- Soroslearentzako gunek bat ezarriko da, horren urruntasuna eta bere lana egiteko behar besteko ikuspena ziurtatzeko.
- Bainu-lekuan sartzeko eta irteteko, gomendatutako gutxieneko 2 metroko distantzia gorde beharko da.
- Nasa perimetrala igerilekuko ontziko erabiltzaileak sartzeko eta irteteko baino ez da erabiliko, eta ezingo da bertan beste helburu batzuetarako egon. Pasabidea izan beharko du, eta ezingo da bertan etzan eta eguzkia hartu, toalla jarri eta abar.
- Erabiltzaileek arreta berezia jarriko dute igerilekuko paperontzietan eskularruak edo maskarak ez botatzeko. Kasu horretan, berariazko puntu bat gaitu beharko luke jabekideen komunitateak erabili eta botatzeko materiala biltzeko.
- Igerilekuko aldagelak eta komunak itxita egotea gomendatzen da, baldin eta ezin bada ziurtatu sarbideak behar bezala kontrolatuko direnik eta erabilera bakoitzaren ondoren garbitu eta desinfektatuko direnik, salbu eta mugikortasun urriko pertsonak erabiltzen badituzte.
- Etzaulki edo hamaka komunitarioak erabiltzea debekatuko da, kutsatu ez daitezten. Etzaulki edo hamaka pertsonalak baimenduko dira, baldin eta bermatzen bada ez direla bizikide ez diren pertsonekin partekatuko. Batetik bestera 2 metroko tartea egongo da gutxienez.
- Perimetroko hesietan toallak jartzea debekatuko da, kutsatzeak saihesteko.
- Nahitaezkoa izango da bainatu aurretik eta bainatu ondoren duxatzea.

7. ERREFERENTZIAK

- COVID-19ko krisiaren ondoren igerilekuetako jarduera irekitzeko Osasun Ministerioaren gomendioak (2020/05/14).
- Turismo-sektoreko establezimendu eta langileentzako jardunbide egokien gida, Osasun Ministerioaren eta Merkataritza eta Turismo Ministerioarena.
- COVID-19aren ondoriozko testuingurua dela-eta, laster irekitzekoak diren erabilera publikoko ur-instalazioetarako protokoloa, igerilekuen sektoreko elkarteek egindakoa.
- 742/2013 Errege Dekretua, irailaren 27koa, igerilekuen irizpide tekniko-sanitarioak ezartzen dituenak.

- 32/2003 Dekretua, otsailaren 18koa, erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitarioa onartzeari buruzkoa, eta 208/2004 Dekretua, azaroaren 2koa, erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitarioa aldatzen duena.
- 865/2003 Errege Dekretua, uztailaren 4koa, Legionellosiaren Prebentzio eta Kontrol Sanitariorako irizpide higieniko-sanitarioak ezartzen dituena.
- SND/414/2020 Agindua, maiatzaren 16koa, normaltasun berri baterako trantsizio-planaren 2. fasea aplikatuz alarma-egoera deklaratu ondoren ezarritako estatu-mailako zenbait murrizketa malgutzen dituena.